

Zentzunak eta fedea ez daukie oporrik

Lantegietan ez, lantegirik geienetan lanean diardue oraindino il onetan, eurena agutzukoa izaten da eta; baina eskoletan mutualdia eta opor giroa asita dagoz. Oporrak, jaiak esan gura dabe, eta jai giroan, gorputzari merezi dauan atsedena emon bear jakon atxekiaz, sarrri askotan zentzuna eta fedea be baztatu lez egiten ditugu, beste aldi batzuetarako onak, baina une ontarako enbarazugarri balitzaz lez.

Zentzuna da leenengo baztartzan dana. Kotxea bedeinkatzen danean entzuten dau «patxa eta zentzun ona eta preminarik bagako prisetatik aldentzea», barriro bearrean asten gareanera-ko edo baztartzan da. Artu autoa eta or goaz, barruan dogun piztiari eskubide osoak emonik, baztarrak iruntsi bearrean, zeinek baino zeinek kilometro geiago epe laburragoan egin gura bagenduz lez.

Estadistikei begiratzea baino ez dago barruko pizti orrek zelango frutuak emoten deuskuzan ikusteko. Naikoa dira iru-lau egunetako jaiak bide baztarran il eta zaurituak zenbat izan diran jakitun jarteko. Eta darabilguzan prisak zertarako geienetan? Pare bat kilometro aurrerago gelditu eta egonean egoteko. Bien bitartean, geure eta besteen bizitzak arrisku gorrian. Bein eta barriro entzuten da patxadaz ibilteko, norbere eskua zaintzeko, premina bagarik arrapaladetan ez ibilteko, baina bolanteak drogea eta nik dakit ba zer euki bear dituan. Ez eta ez, zentzunak ez dau oporrik artzen, ez leuke artu bear opor giroan be. Beranduko negarrak eta eskarmentuak ez dabe ezer konpontzen.

Zentzuna baztatu ezkeru, beste gauza asko be kaxan sarturik gelditzea ez

arritzekoa. Trokote andiegitxoa delakotan edo, bigarren baztartzan dana fede zereginena izaten da. Ondartzako edo mendiko eguzkia ipinten dira «jaungoikotxo» lez. Eta eskari zorrotzak izaten ditu gero orrek. Baltzitu egin bear da, osasun itxurazko agertu lagunen aurrean. Ez dau bestetarako astirik emoten. Eguzkia iruntsi aal balitz iruntsi egingo litzateke, norbere azalari jositaitzi.

Urtea zear arduratsu edo diran amai-katxok udaldian oporrek emoten deutez Jaungoikoagazko artuemonari. Batzuek olantxe izan bear daben ustetan, eta antigualeko ez agertzeko beste batzuk. Besteak bai, geuk be bai, gitxiago ez izateko be. Badira bai, doazen lekura doazela, kristinau zintzo lez jokatu eta fededun agertzeko lotsarik ez dauki-
nak, oporraldian be fedea lantzeari eta mantentzeari ekiten deusienak, baina bestelakoa be asko. Ezer aurreratzen dalakotan? Bai zera, modea olantxe dalakotan itxuraz.

Bizi izateko arnasea arteak ez daka oporrik. Lo gagozan bitartean be gure birrikak bearrean diardue. Janari be ez jako parkatzen, biziko bada jan be egin bear izaten da eta. Fede bizitzeari, Jaungoikoagazko artuemonari, otoitz egiteari, zergaitik trabagarri lez begiratu? Egun libreak ez ete dau danerako beste astirik emoten ba? Eguzkia eta atsedena ondo dagoz, bearrezkoak izango dira ausaz, baina kristinau gareanik aaztu barik.